

## Ez daukagu galtzeko ezer, hori da pena

DONOSTIAKO ZINEMALDIKO 62. edizioaren palmare-sak utzi duen zaporeak badauka zerikusirik aurrei-kuspenekin: parte-hartzaile guztiek daramatzate kopetan pintatuta espero dezaketenen marra gorriak. Ez da gauza bera Sail Ofizialean eskubide osoz sartu zarela pentsatzea edo egotea bera garai-pentzat hartzea.

Bada lorpena: *Loreak* filmak historia idatzi du dagoeneko. Baina edizio honetatik txaloak baino zerbait gehiago eraman izan balitu, ondo mereziak izango ziren.

Zazpi sari nagusietatik lau Espainiako zinemaren-tzat izan dira. Nork esan du kontzesioa? Festibal hau marko batean kokatzen da, Espainiako industriaren-tzat garrantzitsua da. Eta horregatik segurata lokar-tuaren aurretik bezala pasatzen dira maisulan gisa ondo egindakoak izanagatik Berlin, Venezia edo Cannes hanka puntetan zeharkatuko zituzten ekoiz-pen batzuk.

*Magical girl* eta *La isla mínima* ekarri dute berrita-sunik dena den, formalki baino, filmek duten irakur-keta politikoan. Espainiako Trantsizioaren Kultura, gai batzuk sistematikoki baztertzen zituen narratiba gisa, amaitzen ari dela seinalatzen dute bi film horie-tan agertzen diren elementuek.



*Magical girlek irabazi du 62. edizioko Urrezko Maskorra.*

Euskal zinemak itxaron egin beharko du Zinemal-dira espektatiba handiagoekin hurbiltzeko, agintariek hemen ikus-entzunezko industria sendo baten aldeko apustua egin arte, gero industria horrek festibalean zer edo zer irabazteko izan dezan. Momentuz, galtzeko deus ez edukitzearen lasaitasuna besterik ez dugu. Igualakoak dira zerbait irabazi behar duenaren urduritasunak. ■

**Gorka  
Bereziartua Mitxelena**



## Umore zaharkitua, umore berritzailea

EUSKAL HERRIKO ekoizpen onenaren saria irabazte-ko faborittoa *Loreak* bazen ere, Borja Cobeagaren *Negociador* lanak lortu du garaikurra. Eta zur eta lur geratu gara, ximplea iruditu baitzaigu *Negociador*, Josu Eiguren PSEko lehendakariak ETAko kideekin izandako elkarrizketetan oinarritua: umore malenko-niatsua egin nahi zuela-eta, diskurtso serioa eta *Vaya semana* zigilua daramaten topiko-txiste errepikako-rrak uztartu ditu zuzendariak, erdibideko emaitza irregularra eskainiz; ez dugu ezer berririk aurkitu lanean. Aldiz, barre gustura egin dugu *Relatos salvajes* film sarkastiko, odoltsu eta basatiarekin. Europar film onenaren saria irabazi duen istorio bilduma honetan –lantaldea argentinarra izan arren Espainia eta Argentinaren arteko koprodukzioa delako–, giza-kion oinarritzko instintuak muturrera eraman ditu zuzendariak, umore beltza –oso beltza–, biziki kriti-koa eta garratza erabiliz.

Epaimahaiaren aipamen berezia berriz, oso propo-samen gomendagarriarentzat izan da: *Gett, the trial of Viviane Amsalem*. Gidoi bikaina duen eta lau horma barruan garatzen den istorio indartsua da pelikula judutar hau, emakumeek bizi duten zampaketa gogor

–baina panfleto kutsurik eta dogmatismorik gabe–salatzen duena. Eta emakumeek, zehazki auzo bazter-tuetako emakume beltzek aurrera egiteko duten zail-tasunez mintzo zaigu Beste Begirada Bat sariaren garailea: *Bande de filles* frantziarra.

Publikoak dokumental bat saritu du, eta ez da ohikoa, baina aurkeztu duten leketan jendea lilura-tuta utzi du Wim Wenders eta Juliano Riberoren *The salt of the Earth* lanak, munduko gatazkak eta paisaia ederrak irudikatzeari bizitza eskaini zion Sebastião Salgado argazkilariaren inguruan. Nick Cave musikariari buruz Zinemaldian eman duten *20,000 days on Earth* dokumental bitxi eta originala ere ikusteko modukoa da, aukera izanez gero. Baita gormutuen barnetegi batean garatzen den *The Tribe* ukrainarra ere, bortizki astintzen zaituen esperien-tzia gordina eta isila (ez dago hitzik pelikula osoan). Edota Daniel Wolfe-ren *Catch me daddy* indartsua, ihesaldi baten istorio iluna, agoniak eta tentsioz bete. ■

**Mikel  
Garcia Idiakez**

